ALUMINIO-ALEAZIOAK: METALURGIA ETA APLIKAZIOAK (PRESENTZIALA ETA STREAMINGA) IKASTAROA (AURREZ AURREKOA EDO ONLINE)

GAIA	Ingeniaritza Mekanikoa eta Fabrikazio Prozesuak
ECTS/ORDUAK	8 ORDU
EGUTEGIA	2023/02/07 - 2023/02/08 At-Az
TOKIA	Arrasate-Mondragón
HIZKUNTZA	Gaztelania
MODALITATEA	Aurrez aurrekoa edo Online

Informazio gehiago eta izen-ematea

HELBURUAK

Aluminio-aleazioen erabilera nabarmen handitzen ari da, zenbait propietate dituztelako, hala nola dentsitate txikia edo korrosio atmosferikoarekiko erresistentzia handia. Hala ere, batzuetan, aleazio horiekin egindako diseinuak arazoak izaten ditu, altzairuekin dituen ezberdintasunengatik, material horiek ordeztu ohi baitituzte.
Prestakuntza-ikastaro honetan, aluminio forjatuko aleazioen ezaugarriak aztertuko dira, hau da, galdaketa bidez eta ondoren konformazio eta/edo mekanizazio bidez lortzen diren aleazioenak (1xxx, 2xxx, 5xxx, 6xxx, 7xxx serieak). Aluminio-aleazioen azterketa metalurgiaren eta haren propietateen arteko erlazioaren ikuspegitik egiten da, bai eta prozesagarritasunaren (makinagarritasuna, soldagarritasuna, hotzeko konformagarritasuna, anodizatzeko gaitasuna) eta zerbitzuan duten portaeraren (korrosioa, portaera mekanikoa) ikuspuntutik ere.

Hauek dira ikastarorako proposatutako helburuak:

- Industrian erabiltzen diren aluminio-aleazio nagusien ezaugarriak deskribatzea, propietateak, prozesagarritasuna eta zerbitzuan duten portaera kontuan hartuta.

- Aluminio-aleazioei aplikatzen zaizkien tratamendu termiko, mekaniko eta gainazalekoak deskribatzea, haien propietateak optimizatzeko.

- Aluminio-aleazioen aplikazioak aztertzea.

Ikastaroa aurrez aurre nahiz streaming bidez egin daiteke plataforma birtual baten bidez (Zoom).

Enpresak bere instalazioetan dituen beharretara egokitutako ikastaroa emateko aukera.

NORI ZUZENDUA

- Bulego Teknikoko eta Ingeniaritzako sailetako langileak
- Kalitatea kontrolatzeko saileko langileak
- Fabrikazio/Produkzio Saileko langileak

PROGRAMA

- Aluminio-aleazio motak
- Aluminio-aleazioak izendatzeko arauak
- Tratamendu-egoerak
- Korrosioaren aurreko portaera
- Fabrikazio-prozesuak: makinagarritasuna, soldagarritasuna, hotzeko konformagarritasuna eta anodizatzeko gaitasuna
- Gehien erabiltzen diren aluminio-aleazioak
- Aluminio-aleazioen aplikazioaren adibideak

IRAKASLEAK

Gomez Rodriguez, Xabier

---

https://www.mondragon.edu/cursos/eu/ikastaroa/aluminio-aleazioak-metalurgia-eta-aplikazioak-presentziala-eta-streaminga